



# Elgoibar BERDEA

ELGOIBAR BERDEA ekintza DEKALOGO bat da, herritarren eta ingurumenaren mesedetan, ingurumena errespetatuko duten ohitura berriak bultzatu nahi dituena.



## IRAUNKORTASUNA BULTZA EZAZU

Udalak, urteetan, Elgoibarko herriaren iraunkortasunaren alde lanean dihardu, Tokiko Agenda 21 delakoaren bitartez.

Herritarren partaidetza zuzenari esker, Udalak hainbat ekintza burutu ditu: hala nola, olio biltzeko edukinontziak instalatu dira, konpostatzeari buruzko proba pilotuak egin dira, eta energia berriztagarriak instalatzeko aukerei buruzko nahiz udalerriko baserrien eraginkortasun energetikoari buruzko azterketak gauzatu dira.

ELGOIBAR BERDEAren xedea, bestalde, ondorengoa da: gure ekologiaren, ekonomiaren eta gure herriko belaunaldien onerako, eguneroko bizimoduan, ohitura berriak hartzeko beharraz kontzientziaztea.

Gogoan izan ondoko hiru gako hauek: hondakin gutxiago sortu, berrerabili eta birziklatu.

**“Sistema iraunkorra izan dadin, horri eusteko besoak behar dira.”**



## EKONOMIA IRAUNKORRA SUSTA EZAZU

### IBILGAILU ELEKTRIKOAK

Elgoibarren eta eskualdean, ELGOIBAR **BERDEA** programaren bitartez, beste ekintza berritzaile bat bideratuko da, hain zuzen ere, ibilgailuak alokatzeko proiektu pilotua.

“Car sharing” eredua bultzatu nahi da proiektu horren bitartez.

Herritarrek orduka alokatu ahal izango dituzte ibilgailuak, bai herri barruan, bai eskualdean, joan-etorri laburrak egin ahal izateko.

**“Zuretzat eta naturarentzat dohainik izango den erregaia nahi dugu.”**



Gizartea ingurumenarekiko arduratsua izan dadin, herritar bakoitzak bere ekarpena egin behar du, eguneroko ohituren eta jarreraren bidez. Horretarako, aski izango da, besteak beste, hondakinen, mugikortasunaren edo energia kontsumoaren alorrean arduraz eta erantzukizunez jokatzeko. Laburbilduta, hori guztiori dugu ELGOIBAR BERDEA, hausnarketarako eta sentsibilizatorako deia egitera bultzatzen duen ekimena.



## **HASIERA BATEAN, 4 lan ildo izango dira:**

Herritarrentzako carsharing kontzeptua.

Enpresentzako carsharing kontzeptua.

Salgaien mugikortasuna eta banaketa.

Prototipo bat ekoiztea: pedalei eragiteko sistema lagundua duen trizikloa.



## Herritarrentzako carsharing kontzeptua:

Elgoibarko herritarrek ibilgailu elektrikoak alokatzeko erabili ahal izango duten sistema da, partekatze eskeman oinarritua. Ibilgailu horiek autoak, bizikletak edo motozikletak izan daitezke. Erabiltzaileek beharren arabera eskatu eta epe labur baterako alokatu ahal izango dituzte.



## Enpresazako carsharing kontzeptua.

Ibilgailu elektrikoak erabili nahi dituzten enpresak aurkitu beharko dira. Enpresako langile batek edo gehiagok, banaka edo taldeka, ibilgailu bat partekatuko dute libre dagoenean. Gainera, ibilgailua elektrikoa izango da. Hala, enpresak, urtean, gutxienez X kilometro egingo dituela hitz emango du. Udalak, bestalde, ibilgailuak jarriko ditu enpresen esku; eta enpresek, berriz, kilometroko X euro ordainduko dizkiote proiektuari. Ibilgailuak erosteko aukera ere izango da, 4 urterako renting-ari esker.



## Salgaien mugikortasuna eta banaketa:

Elgoibarko erdigunean salgaiak eta mezuak banatuko dira furgoneta elektrikoak eta pedalei eragiteko sistema lagundua duten trizikloak erabilia. Kanpoko banatzaile handien eta merkataritza eta ostalaritza establezimenduen arteko bitartekariak izango dira; baita herriko dendak, ostalaritza establezimenduak eta herriko zerbitzuak bezeroen etxeetara hurbilduko dituztenak ere.

Salgai guztiak lonja batean utziko dira, eta ondoren, banatu egingo dira arestian adierazitako zerbitzuaren bidez.

Zerbitzu berriak sortu eta eskainiko dira. Adibidez, merkataritza eta ostalaritza establezimenduek sortutako hondakin solidoak jasotzeko zerbitzua (kartoia eta beira). Hondakinak, ondoren, Elgoibarko Garbigunean utziko dira. Zerbitzu hau eskaintzeko ordutegi jakin bat egongo da, eta aldez aurretik, eskaera egin beharko da.

Horrela, kartoia biltzeko lurpeko edukinontzietan gertatzen den arazorik larrienetariko bat desagertuko da.



## **Prototipo bat, hau da, pedalei eragiteko sistema lagundua duen trizikloa, ekoiztea:**

HELBURUA: Azken miliako salgaiak garraiatzeko ibilgailua diseinatu eta ekoiztea.

### **ABANTAILAK:**

Ibilgailu hau eta ibilgailu tradizionalak alderatuta: zarata nabarmen gutxitzen da, ia ez da gas kutsatzailerik igortzen, toki gutxiago behar dute hiri-gunean ibiltzeko eta leku zailtara irits daitezke.

Hainbat gauzatarako erabil daitezke.



## Jarduera esparrua: Elgoibar eta Debarrena.

Irabazi asmorik gabeko Elkarte bat sortuko da, proiektua gestionatzeko. Proiektuari **LAGUNTZA** emateko gaitasuna eta borondatea duten erakunde guztiek parte hartuko dute bertan.



Lau urtetan zehar, Elgoibar herriko eta bailarako mugikortasunaren laborategi bihurtuko da.



11.000 biztanleko herri batean, proiektu hau bideragarria izatea lortzen baldin badugu, herrialde osora zabaldu ahal izango dugu.



Onura: bizitzeko eta gozatzeko inguru atseginagoa izango dugu.



**HASIERAN**, Gipuzkoako Foru Aldundiak 300.000€ jarri zituen proiekturako; 100.000€ 2010 urtean, 100.000€ 2011 urtean, eta 100.000€, 2012an.

Proiektuari **JARRAIPENA** emateko , Eusko Jaurlaritzak 299.000,80€ eman zituen.

Elgoibarko Udalak 101.000€ ordainduko ditu proiektuaren ondorioz.



IBILEkin hitzarmena sinatu da, argindarra hornitzeko eta beharrezko ekipamenduak jartzeko (argindarra kargatzeko guneak).

EVErekin hitzarmena sinatu da, herritarrentzako eta enpresentzako carsharing-ean erabiliko diren ibilgailuak direla-eta.



Proiektu honen baitan, jarduera berriak egingo dira; horrexegatik, beste gastu eta diru-sarrera batzuk ere izango dira.